

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Gauzen izateaz edo izakarien jatorriaz edo...

De Rerum Natura 3. ZaldiEroa.
Elkar (2010).
350 komiki, 32 koloretan.

“DE RERUM NATURA latinezko poema epikoa da. Hexametro daktilikoa jarraituz idatzita dago, sei liburuk osatzen dute eta fisika epikurearra du ardatz nagusi. Atomismoaren printzipioak azaltzen ditu; buruaren eta arimaren izaera; zentzumena eta pentsaera; munduaren garapena eta haren fenomenoak; zeruko zein lurreko hainbat fenomeno azaltzen ditu ere bai...”. Arraioa eta arranopola!

Hori irakurri ondoren, nire burmuin eskasak aktibatzen mekanismoak jarri ditut martxan: *De Rerum Natura*, erran nahi baita, gauzen izateaz edo izakarien jatorriaz edota izanaren izatasunaz... gogoeta nago.

Izanak izena du: ZaldiEroa. Lehen aldiz entzun nuenean, Neil Youngen *Crazy Horse* banda heldu zitzaidan burura. *Crazy Horse* baina, Sioux tribuko buruzagia izan zen. Ipar Amerikako jatorrizko herria izan ziren Siouxiak, europarrak heldu baino lehenago lurralde zabal baten jabe.

Bitxia. Bitxia egin zitzaidan ZaldiEroa –euskal siouxa alegia– Faltzesen sortua izatea. Patxi Huarte Larraburu Erriberriko merindadekoa, hara hor. Nafarroako euskal jatorri erabatekoare-

kiko eszeptikoak direnentzat, hara harribitxia.

Harribitxiak ZaldiEroaren komikiak dira baina. *De Rerum Naturaren* hirugarrenean, joan deneko hiru urteetako 350 komiki paratu ditu; 700etatik bitxiak. Lukreziok sei liburukiz osatu zuen bere *De Rerum Natura*, ZaldiEroak hiru egin ditu dagoeneko. Badoa aitzina zaldi marrazkigile eroa. *Berrian* ia egunero –sei egunetan, ZaldiEroak igandean atsedena hartzen du–, gauza eta izakari suerte guztien peripeziak eskaintzen dizkigu.

*De Rerum Natura 3*ko azalean Napoleon Lopez pertsonaia dugu protagonista nagusia. XXI. mendeko erromatar autokrata –autokrata dela ZaldiEroa *dixit*, enkas diot– La Pelota Basqua menpean hartuta ageri da. La Pelota Basqua bakerako mahaia bihurturik ageri da jeneral berria. Brave Heart amorratuta dago, Gizon Jakintsua saltoka eta M’ongolo etsitua. Gure fauna eta florako gainerako pertsonaiak ere aiduru eta etsituta daude, The Organization-eko “lagunak”

barne. “Amaitu dira arazo identitarioak!” oihu egin du erromatar-hispano-frantses lehendakari *baskista* berriak kontrazalean –eta kontraerasoan–.

Honatx tribuko irrintzi berriaren eleak: “M’ongolook ez dugu etsitzen horregatik. Trostan jarraitzen duen herria ez da inoiz hilko. Lukrezio berria dugu gidari, barka, marrazkilari”.

Milesker ZaldiEroari. ■



Irudiak eder,
irudimenak plazer



+XO!
haur bilduma berria

www.txalaparta.com



txalaparta